

**2004KO AZAROAREN 4AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Laua.

HILABETEA: Azaroa

URTEA: Bi mila eta laua.

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Apartekoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Pello Garaialde Goikoetxea
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Imanol Aranburu Gutierrez
Jon Olano Arrese
Malu Valles Fernandez
Ana Asla Egialde
Jon Kortaberria Lasa
Jose Antonio Ibaibariaga Usabiaga
Alfonso Segade González
María Pilar Vispo Chamosa
Julio Herreros Serna
Gonzalo Zaldo eta Arana
Iñaki Saldaña Herrero

ETORRI GABEA: Juan Martin Aldaregia Etxebarria
Aitor Aldasoro Iturbe
Jose Antonio Sanchez Gutierrez

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTAK. 2004ko urriaren 7 eta 13ko akten onespena.

2004ko urriaren 7 eta 13ko akten berri eman ondoren, Julio Herreros jaunak eskatu du 2004ko urriaren 13 aktan adieraztea, "Igartzatik plataformaren" ordezkariak zinegotzien mahaiaren inguruan eseri zirela eta berak esan zuela horrekin ez zegoela ados.

Aktan hori jartzea onartu egin da eta bide batez 2004ko urriaren 7 eta 13ko aktak aho batez onartu dira.

Gaur ere, urriaren 7 eta 13ko bileretako egoera azaldu da, hau da, "Igartzatik plataformaren" ordezkariak zinegotzien mahaiaren inguruan eseri dira eta esan dute beraiek garbi daukatela hor egon behar direla.

Alkateak Plenoaren araudia gogoratzen die eta beraiek esan dute, puntu bakoitzean beraien iritzia emateko asmoa dutela.

Horren aurrean, Alkateak zinegotzietan proposatzen die, Udalbatzaren Osoko Bilkura atea itxita egitea. Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña EBko ordezkaria proposatutakoaren aurka azaldu da.

Beste talde guztietako ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza izan da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 1 (EB)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da Udalbatza Osoa atea itxita egitea.

Alkateak publikoari Batzar Aretotik irteteko eskatu dio.

2.- HIRIGINTZA HITZARMENA. HUNOLT, S.A.rekin sinatu beharreko hirigintza hitzarmena.

Ezagutzera ematen da, HUNOLT,S.A.rekin sinatzea proposatzen den hitzarmenaren edukia:

"Beasainen bi mila lauko azaroaren

BILDURIK

Alde batetik, PATXI PLAZAOLA MUGURUZA, Beasaingo Udalaren Alkate-Lehendakari jauna, 15976253-A NA duena, Beasaingo Udalaren izenean. Ekintza honetarako 2004ko azaroaren 4an egindako Udalbatza Osoak eskuduntza ematen dio, 2004ko azaroaren 5ean Udal IdazkariaK emandako ziurtagiriaren arabera.

Beste aldetik, EMILIO HUNOLT ORDORICA jauna, adinez heldua 15882351-T NA duena, A-20015392 KIF duen eta Beasaingo Senpere kalean, 14an helbideratuta dagoen HUNOLT, S.A.ren orde. Carlos Torres Alcalá de Henaresko Notario jaunaren aurrean 2003ko abenduaren 23an egindako ahalmen-eskriturak, ekintza honetarako eskuduntza ematen dio.

Beste aldetik IGNACIO M^a IRURE GOROSTEGUI, 15.120.380-L NA duen eta AGUSTIN ETXEBERRIA IRIONDO, 15.940.003-Z NA duen Auzietarako Kontuhartzaileak. Tolosako Lehen Instantziako bi zenbakiko Epaitegiaren 2004ko ekinaren 2ko Probidentziaren bitartez izendatuak izan ziren.

ADIERAZTEN DUTE

I.- Beasainen helbideratuta dagoen HUNOLT, S.A. enpresak jasaten ari den benetako egoera sozio-ekonomiko larriaren aurrean eta enpresak berak eskatuta, Beasaingo Udalak, kudeatzaile lanean babestuta, aipatutako arazoari irtenbidea lortzeko laguntza eskaintzen du, bere eskuduntzakoak diren hirigintza-xehetasunak garatuz. Izan ere, honelako enpresak bere jarduera udaberrian edo eskualdean ematen jarraitzeak, Beasaingo eta eskualdeko biztanleentzat onura besterik ez du ekarriko.

II.- HUNOLT, S.A., Beasaingo Arau Subsidiarioaren 7 Hirigintza Arean (7 HA) kokatutako bere jabetzako terrenoak saltzeko asmoa du urbanistikoki garatu daitezen, izan ere ordaintzeke dauden soldatei aurre egiteko eta berrestrukturaziko neurriak egikaritzeko fondon behar ditu.

III.- Horren ondorioz HUNOLT, S.A.k Beasaingo Udalerrian edo eskualdean terreno bat eskuratu edo alokatu nahi du, ezaugarri egokiak dituen eraikinean bere jarduerari jarraipena emateko.

IV.- Beasain-Zumarraga Lurralde Egitasmo Partzialaren irispideak jarraituz, Beasaingo Udalak, egungo 7 Hirigintza Areako terrenoen zati bat (7.4 orubea) edo hauek eta zoru ez hiritargarriaren zati bat birkalifikatuko lituzke, HUNOLT enpresaren terreno guztiak unitate egikaritze bakarra kontsideratuz.

Hirigintza xehetasun hauek Arau Subsidiarioen berrikuntza dokumentuan jasoko liriteke.

Orain arte esandakoa gauzatu ahal izateko, bildutakoek kontratatzeko ahalmena elkarri aitortzen diote eta dokumentu hau idatzi eta hartzen dituzte ondorengo

KONPROMISOAK

Lehenik. Beasaingo Udalak, Arau Subsidiarioen berrikuntza (idazlanari hasiera eman zaio) edo aldaketa dokumentuan 7 Hirigintza Area (7 HA) eta zoru ez hiritargarrin, ondorengo parametroak ezarriko ditu:

- EREMUAREN AZALERA OSOA.....19.255 m²

URBANIZAZIO OSOA: honekin batera doan planoan ezarritako eremuak.

- APROBETXAMENDUAK:

1. ETXEBIZITZAK GUZTIRA: 136 etxebizitza.

PROMOZIOEN BANAKETA	SABAIAREN AZALERA
---------------------	-------------------

Etxebizitza libreak: 109 (x 110 m ² t)	11.968
Babes ofiz. Etxeb.: 27 (x 110 m ² t)	2.700

Eraikitakoak GUZTIRA:	14.688 m ²
-----------------------	-----------------------

2. ERAIKIGARRIAK DIREN AZALERAK:

ERAIKINEN PROFILEAK: Soto oina + III + A + Teilatupea

Soto oina.....	6.000 m ²
136 Trasteleku (1.360 m ²)	
155 Gareje-plaza (4.260 m ²)	

Tipo-oina (B+1.+2.).....	11.500 m ²
120 Trasteleku (1.200 m ²)	

Atiko-oina.....	2.300 m ²
-----------------	----------------------

Teilatupea.....	888 m ²
-----------------	--------------------

ERAIKITAKO AZALERA OSOA:	14.688 m ² t
--------------------------	-------------------------

14.688 / 136 Etxebizitza = Etxebizitzako 108 m² eraikita.

Aipatutako parametroak gehienezko izaera dute eta kasu honetan ezin izango da hirigintzako arauetan ezarritako %20ko igoera aplikatu.

Oharra: Eremuan HUNOLT enpresak gutxi gorabehera 13.500 m² partizipazioa izango du. Aipatutako zenbakietako %70aren partizipazioa suposatzen du.

Egungo 7 HAKo (7,4 orubea) terrenoen zati bat bakarrik birkalifikatuko balitz, egungo babes ofizialeko etxebizitza estandarren igoera aztertuko litzateke, baina beti ere, aipatutako etxebizitza librean (109) eta beste aprobetxamenduen % 70ren kopurua berrmatuko litzateke.

Zoruaren jabeak, beharrezkoa den bide-azpiegiturarako zorua lagatuko du. Gainera Udalari dagokion %10ko aprobetxamendua dohainik lagatu beharko du, baina beti ere, urbanizazio kargak kontutan izan gabe.

Bigarren. *HUNOLT, S.A.k bere jabetzako terrenoen salmenta egin ondoren, 2003ko urtarrilaren 1etik ordaintzeke dauden langileen lan-ordain sariak ordainduko ditu.*

Hirugarren. *Bide batez, HUNOLT enpresak Beasaingo udaberrian edo eskualdean jarduera berdinarekin jarraitzeko eta toki berrian jarduera-lizentzia lortzen duenetik hiru urtetan mantentzeko konpromisoa hartzen du.*

Zentzu honetan Beasaingo Udalak HUNOLT S.A.ri bere laguntza eskaintzen dio, enpresaren jarraipena bermatzeko behar den tokia bilatzeko, kudeaketak egiteko.

Eta guztiaren adostasun frogatzat bildutakoek, dokumentu hau hirukoizturik sinatzen dute, goian aipatutako data eta lekuan.

*Alkatea
Patxi Plazaola Muguruza jauna*

*HUNOLT, S.A.
Emilio Hunolt Ordorika jauna*

Auzi-Kontuhartzaileak

Ignacio M^a Irure Gorostegui jauna

Agustín Echeberria Iriondo jauna

Alkatea jaunak (EAJ/PNV-EA): “Creo que todos sabeis que HUNOLT, S.A. se encuentra intervenida judicialmente. Ha tenido que vender para frente a sus acreedores, el patrimonio de Madrid y Valencia. En este momento, unos 7 trabajadores de los 40 que eran en plantilla, están en producción y ante esta situación una de las posibles soluciones es reconocerles unos derechos urbanísticos. En el convenio se mencionan esos aprovechamientos, pero nuestro primer objetivo es que los trabajadores, cobren la deuda que se les debe desde el 01-01-2003. La primera entrega de dinero que se le haga a HUNOLT, S.A. es para que ésta a su vez pague a los trabajadores lo que les adeuda. Otra partida sería para negociar la quita con los acreedores, y tener así capacidad financiera para adquirir materia prima y continuar con la

producción. El tercer pago sería para adquirir o arrendar un pabellón en la comarca. Se le da un aprovechamiento lógico, teniendo en cuenta además que con la revisión de las NN SS, se cambiaría la calificación de industrial a residencial.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB): “Lo veo bastante enredado y complicado. El decir que las familias van a cobrar si se adquiere el suelo, es divagar bastante. No sabemos si los interventores van a pagar primero los salarios, después a los proveedores, etc.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “En el convenio ya se dice que una vez efectuada la venta de los terrenos, HUNOLT, S.A, abonará las retribuciones de los trabajadores pendientes de pago desde el 01-01-2003, y eso es copia literal del acuerdo que tienen los trabajadores con la empresa.”

Iñaki Saldaña jaunak (EB): “Yo creo que el suelo que se le va a vender al promotor para ejecutar vivienda libre y en una pequeña proporción vivienda de protección oficial, habría que cederlo al Gobierno Vasco para construir vivienda protegida.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “En este momento la Ley en suelo urbano exige un 20% de VPO. Nosotros nos hemos amparado en eso e incluso hay margen suficiente para incrementar el número de viviendas de VPO.2

Iñaki Saldaña jaunak (EB): “Yo he estado hablando con el delegado de Comisiones Obreras, y no opina igual. Por todo ello me voy a abstener.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Eso me extraña porque el acuerdo también lo han firmado dos representantes de Comisiones Obreras.”

Beste talde politikoetako ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (EB)

Beraz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

“HUNOLT, S.A.rekin sinatzea proposatzen den hitzarmenaren edukia

aztertu ondoren, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. HUNOLT, S.A.rekin sinatzea proposatzen den hitzarmenaren edukia onartzea.

Bigarren. Alkate jaunari aipatutako dokumentua sinatzeko baimena ematea.”

3.- ELKARLAN HITZARMENA. Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin sinatu beharreko hitzarmena, uraren ziklo osoa kudeatzeko.

Alkateak zerbitzu batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Lankidetzeta-hitzarmena, uraren ziklo osoa kudeatzeko.

AURREKARIAK

I.- Udalbatza Osoak 1999ko azaroaren 25ean, erabaki hau hartu zuen:

Lehenik. “Ur Zerbitzuak, S.A.” ekonomia mistoko sozietatean parte hartzea.

Bigarren. Udal honi dagokion ibilgetu inmaterialaren balorazioa lau milioi (4.000.000) pezetatan finkatzea, uraren ziklo integralarekin erlazionatuta dagoen zerbitzu publikoa emateagatik, ur horniketa et saneamenduaren sareen mantenimenduan eta abonatuaren gestioan zehazten dena.

Hirugarren. Ur Zerbitzuak, S.A.ko 40 akzio izenpetu, akzio hauengatik udalerrian uraren ziklo integralarekin erlazionatuta dagoen zerbitzu publikoa emakidaren aktibo inmateriala ordainduz, 4.000.000 pezetatan zehaztuak, abonatuaren gestioan eta ur-horniketa eta saneamenduaren sareen mantenduarekin bat eginez.”

II.- Ur Zerbitzuak, S.A. Ekonomi Mistoko Sozietatea, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, bertan parte hartzea erabaki zuten Udalak eta Proyectos e Instalaciones de Desalación, S.A.k osatzen zuten.

Beasaingo Udalak aipatutako erabakia hartu ondoren Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Ur Zerbitzuak, S.A.ren %100eko kapitala izatea lortu zuen, udal titularitateko akzioak pezeta bateko prezio-sinbolikoan erosiz. Ekonomia Mistoko Sozietatea, Sozietate publikoan bihurtzea, Beasaingo Udalaren akzioak

Erregistroan inskribatu aurretik egin zen eta horren ondorioz, hauek saltzerik ez zen izan.

III.- 2000. urteko abenduan, Ur Zerbitzuak (“baja” kudeatzeko ardura zuen) eta Gipuzkoako Urak (“alta” kudeatzeko ardura du) Sozietate Anonimoak fusionatu egiten dira, “Gipuzkoako Urak, S.A.”ren bitartez kudeaketa guztia eramateko. “Gipuzkoako Urak, S.A.”ren kapitala osotasunean, Gipuzkoako Ur Kontsorzioarena da.

Horren ondorioz, “baja”ren kudeaketaz Gipuzkoako Ur Kontsorzioa arduratzen da eta honek “Gipuzkoako Urak, S.A.”ren bitartez ematen du, baina Beasaingo Udalean ez da inolako erabakirik hartzen ezta ere inolako hitzarmenik sinatzen.

IV.- Orain proposatzen da Gipuzkoako Ur Kontsorzioarekin hitzarmena sinatzea, Uraren Ziklo osoa emateko, hau da, alta eta bajako sareen kudeaketa nahiz egin beharreko inbertsioak burutzeko.

Hori guztia kontutan izanik, zerbitzu batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik. Ur Zerbitzuak, S.A.ren bitartez eman beharreko abonatuaren gestioa eta ur-horniketa eta saneamenduaren sareen mantenduari buruzko 1999ko azaroaren 25eko Udalbatza Osoaren erabakia bertan behera uztea.

Bigarren. Alta eta bajako sareen kudeaketa nahiz egin beharreko inbertsioak osatzen duen Uraren Ziklo osoa emateko, Gipuzkoako Ur Kontsorzioarekin honekin batera doan hitzarmena sinatzea.

Laugarren. Alkate jaunari baimena ematea, aipatutako hitzarmena sinatzeko.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “En Gipuzkoako Urak, S.A., actualmente se encuentran todos los Ayuntamientos, excepto los de la zona de Txingudi y los que pertenecen a la Mancomunidad del Añarbe. Gipuzkoako Urak, S.A., proporciona agua depurada a todos esos municipios, así como la depuración de las aguas fecales y les factura por este concepto.

Lo que ahora se pretende es ceder la gestión integral del agua a “Gipuzkoako Urak, S.A.”, de manera que además de la depuración de aguas incluidas las fecales, y de la gestión de abonados y el mantenimiento de la red, se va a encargar también de las inversiones necesarias para el mantenimiento de la red. Eso se plantea para diez años y al término de estos, el Ayuntamiento puede recuperar la red en las condiciones cedidas. Ello conlleva el que nos

tengamos que adecuar a la ordenanza y tarifas que propone el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa. Las tarifas son conceptualmente distintas. Nosotros teníamos interés en que en la parte variable (lo consumido) se facturara bien, pero la parte fija de mantenimiento de las instalaciones, la teníamos un poco abandonada. En el Consorcio y en todas las Mancomunidades hay una parte fija y otra variable. Nosotros, respecto a la parte variable estamos bastante cercanos respecto a las tarifas fijadas en la nueva ordenanza que se propone para su aprobación. En la parte variable, sin embargo, tenemos un diferencial muy grande. Ese diferencial tenemos que cubrirlo, ya que recaudamos un 80% del coste del servicio. Con las directivas europeas se va a llegar a homogeneizar las facturas “en cuenca” (el Consorcio de Aguas está “en cuenca”). Esta es una oportunidad para ir adecuando las tarifas del agua y ello significa que nos va a costar más. Además si el ciudadano se da cuenta que el agua, que es un bien escaso, es cara, tiene la capacidad de ahorrar en un margen de un 10 o 15%.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da zerbitzu batzordeko proposamena eta bidez batez, ondorengo hitzarmena sinatzea.

“LANKIDETZA-HITZARMENA, URAREN ZIKLO OSOA KUDEATZEKO

Beasainen, 2004ko azaroaren bostean

BILDUTAKOAK

Alde batetik, Victoriano Gallastegi Altube jauna. Ordezkatzen duen kargu publikoa aintzat hartuz bere gorabehera pertsonalak adieraztetik salbuetsita dago.

Bestetik, Patxi Plazaola Muguruza jauna. Ordezkatzen duen kargu publikoa aintzat hartuz bere gorabehera pertsonalak adieraztetik salbuetsita dago.

PARTE-HARTZAILEAK

Victoriano Gallastegi Altube jauna, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAren izenean; ordezkaritza hori 1998ko otsailaren 20ko GAOn argitaratutako entitateko estatutuen arabera du.

Patxi Plazaola Muguruza jauna, BEASAINgo Udalaren izenean eta Udal horretako alkate den heinean. Ekitaldi honetan parte hartzeko baimena Udalbatzak eman zion,

2004ko azaroaren 4an eginiko bileran hartutako akordioaren bitartez. Akordio haren ziurtagiri bat Udaleko idazkariak eman du eta hitzarmen honi erantsi zaio.

AURREKARIAK

Lehena.- Gipuzkoako Ur Kontsortzioa oinarri asoziatiboa duen zuzenbide publikoko organismo bat da, Gipuzkoako hainbat herrik osatzen dutena (besteak beste, BEASAINek) eta bere xedea da “ur horniduraren eta saneamenduaren azpiegitura sare primarioetan ezartzea, hori ustiatzea eta horri dagozkion zerbitzuak ematea, baldintza egokietan eta indarrean dagoen araudia kontuan izanik”. Estatutuetakoa xedapen horren arabera, Ur Kontsortzioa Beasain udalerriko altako sarearen ur hornidurako eta saneamenduko zerbitzu publikoa kudeatzen ari da.

Bigarrena.- BEASAINgo Udalak kontsortzio-bidez ari da kudeatzen bajako ur horniduraren eta saneamenduaren zerbitzu publikoa, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren bidez.

Beasaingo Udalak nahi du URAREN ZIKLO OSOA, hau da, altako eta bajako sareen kudeaketa eta baita egin beharreko inbertsioak ere, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK bere gain hartzea.

Hirugarrena.- Ur Kontsortzioko estatutuen 7.2 artikulua dioenez, “Kontsortzioak, hala erabakitzen duenean, uraren zikloaren inguruan dituen jarduera-eremua zabal dezake; horretarako, eskatzen dioten udalekin adostasun batera iritsi eta hitzarmen bat sinatu behar du aurretik”. Kontsortzioko Batzar Nagusiak erabaki hori 2000ko abenduaren 21ean egin zuen bileran hartu zuen.

Era berean, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak ezartzen du udalek, eskatzen dutenean, hornidura eta saneamendu zerbitzua kontsortzio-bidez eman dezaketela.

Bestalde, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK berez tokiko entitate bat ez da, baina hala ere, zerbitzu publikoak emateko dauden bideak erabil ditzake, toki jardunbideari buruz indarrean dauden xedapen legalen testu bateginekoko 110.5 artikulua eta estatutuetakoa 9. artikulua arabera. Alde horretatik, GIPUZKOAKO UR

KONTSORTZIOAK, bere zerbitzuak kudeatzeko, GIPUZKOAKO URAK S.A. du sortua, eta horren kapital guztia publikoa da.

Hori horrela izanik, bi aldeek hitzarmen hau sinatzeko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna elkarri aitortzen diote, eta hauek dira hitzarmeneko

KLAUSULAK

Lehena.- *Beasaingo Udalak erabaki du URAREN ZIKLO OSOAREN kudeaketa GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku uztea, hitzarmen honen bidez eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea aintzat hartuz. Ziklo osoan sartzen dira altako eta bajako sareen kudeaketa eta baita egin beharreko inbertsioak ere. Horretarako, Beasaingo Udalak erabaki du GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI kontsortzio-bidezko zerbitzuak emateko behar diren emakidak, emarien aprobetxamenduak, estudioak, proiektuak, sareak, instalazioak eta bitartekoak ematea; horiek guztiak Udalarenak dira.*

Emakiden erabileraren aldaketa, aldez aurretik Udalarekin adostuko da.

Bigarrena.- *Beasaingo Udalak erabaki du GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku uztea uraren inguruko zerbitzuak emateko eta helburuak erdiesteko dituen ahalmenak, eskumenak, gaitasunak, botereak, eskubideak eta betebeharrak.*

Hirugarrena.- *Beasaingo Udalak, honekin batera doan eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, inbertsioen kalkulu eta berrikuntza (914.341,01 €) nahiz Beasaingo Udalarari 10 urtean zehar egin beharreko 514.768,80 €ko ekarpenari buruz, aurkeztutako azterketa onartu egiten du.*

Beasaingo Udalak eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak adostuko dituzte burutu beharreko inbertsioak.

Laugarrena.- *GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK 2005eko urtarriletik aurrera hartuko du bere gain BEASAIN udalerriko URAREN ZIKLO OSOAREN kudeaketa.*

Bosgarrena.- Hitzarmen honek 10 urteko iraupena izango du gutxienez. Hitzarmen hau sinatzen denetik hamar urte behin igarota, Udalak kontsorzio-bidez kudeatutako zerbitzua berrikusi ahal izango du eta, ikusitakoaren arabera, ordenamendu juridikoak baimentzen duen edozein modutan kudeatu dezake zerbitzua; horretarako, behar diren erabakiak hartuko ditu eta indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen urratsak emango. Erabaki hori sei hilabete aurretik jakinaraziko dio Gipuzkoako Ur Kontsorzioari.

Udalak zerbitzua kontsorzio-bidez emateari uztea erabakiko balu, emateari utzi aurretik Gipuzkoako Ur Kontsorzioari ordaindu beharko lioke Ur Kontsorzioak udalerrian eginiko inbertsioei eta berritze-lanei eta Beasaingo Udalari emandako diru-kopuruei Ur Kontsorzioak, inbertsioak eta berritze-lanak egiteko, Beasainen ur ordainagirien bidez kobratutako guztia kendu eta eragiketa horretatik ateratzen den kopurua; kopuru hori negatiboa bada, orduan Gipuzkoako Ur Kontsorzioak ordaindu beharko lioke Beasaingo Udalari.

Seigarrena.- Zerbitzuaren tasei eta prezioei eta udalerriko abonatuiei aplikatu dakizkiekeen ordenantzei dagokienez, Kontsorzioako udalerriri bakoitzak bereak onartu beharko ditu. Nolanahi ere, hitzarmen honen bidez GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN Batzar Nagusiaren esku uzten da tasa horiek urtero eguneratzeko ahalmena, tarifa-egitura aldatu gabe, apirilaren 6ko 2/2004 Foru Arauaren arabera.

Zazpigarrena.- Hitzarmen hau administrazio-agiria da; hala, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arduratuko da horren sorrerari, interpretazioari, aldaketari edo indargabetzeari buruz sor daitezkeen gorabeheretz.

Eta bi aldeek, ados dauden seinale, hitzarmen honen bina ale sinatu dituzte, efektu bakarrerako, aipatutako lekuan eta egunean.”

4.- ORDENANTZA. Uraren ziklo osoari buruzko zerbitzua emateko ordenantza arautzaileari hasierako onespena ematea.

Alkateak Hazienda Batzordeko proposamenaren berri eman du:

GAIA: Uraren ziklo integralaren zerbitzuaren Ordenantza.

Uraren ziklo integralaren zerbitzua kudeatzeko Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmenaren arabera, Hazienda Batzordeak honekin batera doan Uraren ziklo integralaren zerbitzuaren Ordenantzaren onespena PROPOSATZEN dio Udalbatzari.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute:

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Uraren ziklo integralaren zerbitzuaren Ordenantzari hasierako onespena ematea.

Bigarren. Hogeita hamar eguneko epean jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko.

5.- DIRULAGUNTZA. Uraren kontsumoan aurrezkia sustatzeko dirulaguntza ematea.

Alkateak Hazienda Batzordeko proposamenaren berri eman du:

GAIA: Uraren kontsumo aurrezkia eta arrazoimenezko erabilera bultzatzeko dirulaguntza.

Ondasun urri eta baliotsua izanik ura, beraren arrazoizko erabilpena hiritar guztion betebeharra da, ez kontsumoa gutxitze soilagatik, baizik eta zamakutsatzailearen gutxitze handi bat suposatzen duelako.

Hau honela izanik, otsailaren 27ko 3/1998 Euskal Herriko Ingurugiroaren Babeserako Lege Orokorraren 25. artikuluan xedatzen da Administrazio Publikoek beren eskumeneko esparruetan uraren babespena zuzendutako ekintzak garatuko dituztela eta bereziki ur-baliabidearen kopuru eta kalitatea handitzen lagunduko duen erabilpena bermatzen dutenak.

Uraren ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioari emateko sinatu behar den hitzarmenak azpiestrukturen eta zerbitzuaren

kalitatea hobetzea dakar, baina baita ere 2005eko ekitalditik aurrera jasan behar izango dugun kostu handitzea ere, ez bakarrik Beasaingo herritarrok baizik eta Kontsortzioan parte hartzea erabaki duten herrietakoek ere.

Kostu gehikuntza, prezio berriek uraren ziklo guztiaren kostu errealak oinarri hartuta kalkulatzen direlako gertatzen da eta hau horrela egiten da bere autofinantzaketa lortu nahi delako eta ahaztu gabe prezioak, hain urria den baliabidearen arrazoizko erabileran, izan dezakeen estimulua.

Biztanleriaren kontzientziazio lan horretan sakonduz eta ur-kontsumoaren aurrekia bultzatu nahian, Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten dio:

1.- Hiruhilero 4 euroko dirulaguntza ematea etxetiko kontsumoa 10 eta 50 m³ artean duten zergadunei.

2.- Hiruhilero 6 euroko dirulaguntza ematea industrietako kontsumoa 5 eta 40 m³ artean duten zergadunei.

3.- Aurreko paragrafoetan xedatutakoa ez da aplikagarria izango 10 m³ eta 5 m³ baino gutxiagoko kontsumoa duten zergadunei, onartutako tarifa berriek ba daramatelako berezko kostu gutxitzea ur hornikuntza zerbitzuaren erabiltzaileek orain arte ordaintzen zuenarekin alderatuta.

4.- 2005eko ekitaldiko aurrekontuan Gipuzkoako Ur Kontsortzioari transferitu beharreko dirulaguntzaren kopurua aurrikustea, Erakunde hau baita onuraduneei laguntza ekonomikoa banatzearen arduraduna.

5.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabaki hau argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB): “Habria que realizar una campaña de sensibilización para el ahorro de agua.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “De aquí a quince días se mandará un tríptico donde se explique que es el ciclo integral del agua y que hasta el año 2007, lo que se va a incrementar va a ser la depuración, ya que al estar funcionando de manera consorciada va a haber más depuradoras.”

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Respecto a este tema y los dos anteriores que están relacionados, nos parece bien las propuestas e incluso nos satisfacen. Este tema comienza hace siete años donde varias empresas se interesan por la gestión del agua. En aquel momento, por no ostentar el gobierno municipal la mayoría necesaria, se dejan a un lado las ofertas y cuando después de las elecciones cambia el gobierno municipal y con el apoyo de otros grupos, se adjudica a una empresa. No se hizo de una manera transparente, ya que los ciudadanos de Beasain no nos enteramos si aquello era beneficioso o perjudicial, pero lo cierto es que la decisión que ahora se toma creemos que es buena, aunque veremos como se va desarrollando.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Ur-Zerbitzuak, S.A., era una sociedad mixta y tuvisteis razón en el sentido de que aquella sociedad no funcionó muy bien hasta que paso a ser una sociedad pública.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

6.- KREDITU ERAGIKETA.

Alkateak Hazienda Batzordeko proposamenaren berri eman du:

“GAIA: Antzizar Kiroldegia handitzeko obrak finantzatzeko kreditu eragiketa.

AURREKARIAK

2004ko ekainaren 17an Beasainen kokatutako erakunde finantzario guztiei egin zitzaion deialdia, hala nahi izanez gero, Antzizar kiroldegiaren handitze obrak finantzatzeko egin beharreko kreditu eragiketaren formalizaziorako eskaintzak aurkez zitzaizkien ondorengo baldintzetan:

Kopurua: 7.000.000,00 euro

Amortizazio epea: 20 urte, 3 urteko gabealdiarekin.

Ondorengo koadroan jasotako eskaintzen laburpena egiten da:

ERAKUNDEA	KOPURU	KOMIS.	LIKIDAZ.	KALKULO O	INTERES TIPOA	DIFERENTZI.
B. Santander	3.500.000	0	hiruhilekoa	365	Hiruhileko Euribor	0,05%
BBVA	7.000.000	0	hiruhilekoa	365	Hiruhileko Euribor	0,09%
Kutxa	7.000.000	0	hiruhilekoa	360	Hiruhileko Euribor	0,20%
La Caixa	7.000.000	0	hiruhilekoa	360	Hiruhileko Euribor	0,35%
Banesto	7.000.000	0	hiruhilekoa	365	Urteko Euribor	0,13%
B. Guipuzcoano	7.000.000	0	hiruhilekoa	365	Urteko Euribor	0,20%

Nahiz eta honen arabera Banco Santander Central Hispano eta Banco Bilbao Vizcaya Argentaria erakundeek aurkeztutako eskaintzak ekonomikoki onenak izan, Kutxa Fundazioak, Igartza inguruko egokitzapenerako 342.228,89 euroko ekarpena egiteko konpromezuaren aurrean, Hazienda Batzordeak ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten du:

Lehenik:

1.- Gipuzkoa Donostia Kutxarekin ZAZPI MILIOI EUROko (7.000.000,00,- €) zenbatekoa duen mailegua kontratatzea; honen ezaugarri berezianak hauek dira, onartu eta ERANSKIN gisa erabaki honi atxikitzen zaion Kontratu-Proiektuaren arabera: Interes-tasa aldakorra, EURIBOR + %0,20; amortizazio-epea, 20 urte, 3 urteko gabealdia barne.

2.- Aipatu maileguaren helburua, 2004ko aurrekontuan aurrikusitako Antzizar Kirolegia handitzeko obrak finantzatzea da.

3.- Kontratatutako maileguaren itzulketaren berme gisa, Aurrekontuetako diru-sarreraren printzipalaz eta diren nahiz izango diren ondasun eta eskubide guztien nagusiaz eta subsidiarioaz gain, jarraian datozenok ematen dira:

“Aipatu maileguarengatik, honen interes, komisio, gastu eta zor lekiokoen ororengatik, Beasaingo Udalarenaren lehentasunezko hartzekodun izaeraz, era berezian lotzen eta kargatzen da UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FONDOA.

Itundutako bermearen eragimenerako, era ezeztazinean ahalmena ematen zaio Gipuzkoa Donostia Kutxari, akordio hau kasuan kasuko Erakunde ordaintzailearen aurrean erakusteko betebeharrak bakarraz, aurreko lerroaldean

zehaztutako baliabideetan esku hartzearengatik Beasaingo Udalarari sor lekizkiokeen kopuruak ordaindu ahal diezazkoten”.

4.- Era ezeztazinean Gipuzkoa Donostia Kutxan helbideratzea Udal Finantzaketarako Foru Fondoan esku hartzetik eratorritako diru-sarrerak (Zerga Itunduak) edo, hala dagokionean, haiek ordezkari litzana, Udalak, orain kontratatzen dena barne, formalizatuak dituen maileguen eta kredituen ehuneko berdinean edo handiagoan, zorpetzearen guztizkoari datako egunean dagokionez.

Aipatu helbideratzea, kontratatzekoa den eragiketarik nahiz indarrean diren gainontzeko mailegu eta kredituetatik eratorritako kutxarekiko finantz erantzunbeharrak kitatu artean mantenduko da.

Bigarrenik.-

Eragiketa honen formalizaziorako beharrezkoak gertatzen diren dokumentuak sinatzeko ahalmena ematea Alkate Jaunari.

Hirugarrenik.-

Erabaki hau eta ondorioetarako ireki den espedientea derrigorrezko informazio publikoan ipintzea arauzko 15 egunen epe bitartean eta epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada erabakia behin betikoa izango da.

Laugarrenik.-

Espedientea Gipuzkoako Foru-Aldundiari igortzea, aurretzeko eta derrigorrezko baimena eskuratzeko asmoz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, ondorengo iritziak azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB) esan du abstenitu egin behar dela, gai honekiko hartu jarrerari jarraituz.

Gonzalo Zaldo jaunak (PP): “Apoyamos la propuesta, siempre que el compromiso adquirido por KUTXA, se materialice”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nos vamos a abstener porque tambien nos abstuvimos con el acuerdo de la encomienda de la promoción del complejo deportivo municipal a favor de “Beasain Lantzen, S.A.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, PP)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 3 (PSE-EE/PSOE, EB)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

7.- BEASAIN LANTZEN, S.A. “Beasain Lantzen, S.A.ren” Administrazio Kontseiluko kidearen izendapena bertan behera uztea eta beste kide berri bat izendatzea.

Alkate jaunak esan du PSE_EE/PSOeko taldeak eskatuta, Jose Antonio Sanchez Kontseilariaren izendapena bertan behera uztea eta bere ordean Alfonso Segade Gonzalez jauna Kontseilaria izendatzea proposatzen dela. Izendapena legealdia amaitu arte izango da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Alfonso Segade jaunak ez du parte hartu ez eztabaidan ezta ere bozketan.

Bozketa eginda Korporazioak ekintza honetan “Beasain Lantzen, S.A.ren” Batzorde Orokorraren eskuduntzak erabiliz, aho batez onartu du, “Beasain Lantzen, S.A.ren” Administrazio Kontseiluaren kontseilaria izendatzea.

8.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESPENA. Segurtasun dokumentuaren eta segurtasun politikaren onespina.

Ezagutzera eman dira, izaera pertsonalen fitxategiak babesteko Segurtasun eta Segurtasun Politika dokumentuak.

Bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

9.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA. “Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko” Emakundek aurkeztutako adierazpen instituzionala.

Alkateak esan du, Ana Asla Egialde, emakumearen ordezkariaren arduradunak eskatu diola adierazpen instituzionala irakurtzeko:

“ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

2004ko azaroaren 25ean Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta, udal honek honako **ADIERAZPENA** plazaratzen du:

Emakumeen aurkako indarkeriak haien giza eskubideak eta funtsezko askatasunak urratzen eta zapaltzen dizkie.

Indarkeria honen sorburua emakumeen bazterketa estrukturalean datza, bizitzaren eremu guztietan gertatzen dena. Indarkeria mota hau bazterketaren adierazpide soil bat baino gehiago da: bazterketari eusteko ezinbesteko kontrol sozialeko tresna, alegia.

Emakumeen aurkako indarkeria ekidin egin daiteke, jarduketa eta politika ezberdinen bidez zenbait balore sustatuz: sexuen arteko berdintasuna; emakumeen autonomia eta ahalmen politiko, ekonomiko eta soziala indartzea; eta gatazkak konpontzeko bide baketsuen erabilera.

Emakumeen aurka indarkeria erabiltzen dutenek jakin behar dute legeak horrelako ekintzak zigortzen dituela eta gizarte honek ez duela horrelako jokabiderik onartzen.

Indarkeria honen biktimek gure gizartearen elkartasuna eta hurbiltasuna sentitu behar dituzte. Indarkeriaren gurgil zorotik irteteko behar dituzten baliabide material eta pertsonalak eskaini behar dizkiegu, bizimodu berri bati ekin ahal diezaioten.

Aspaldion konpromiso politiko, sozial eta instituzionala nabarmen indartu da, gizartearen gaitz hau erauzteko helburuarekin. Halere, oraindik bide luzea dugu egiteko.

Udal administrazioak oinarritzko papera du, bai emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen, bai biktimei laguntzen eta arreta egiten. Izan ere, udalerrria da indarkeria hau gauzatzen den eremu fisikoa. Gainera, bere antolakuntzari esker, udala da gizarte arazo honetatik eta zerikusia duten pertsonetatik hurbilen dagoen instituzio publikoa.

Horregatik guztiarengatik, udal honek, batetik, **KONPROMISOA** hartzen du, bere eskumenen barruan, emakumeen berdintasunaren alde eta euren aurkako indarkeriaren kontra udal politika aktiboa izateko. Bestetik, udalerriko emakumeak (eta batez ere gizonak) indarkeria honen aurkako jarrera aktiboa azaltzera **ANIMATZEN DITU**, indarkeria hau ez onartuz, isilik ez geldituz, biktimei lagunduz eta, bereziki, azaroaren 25ean deitzen diren ekitaldietan parte hartuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko” Emakundek aurkeztutako adierazpen instituzionala.

10.- MOZIOAK AURKEZTEKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK. Euskara batzordeko proposamena.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA) proposamenaren berri eman du:

“BEASAINGO UDALEAN MOZIOAK AURKEZTEKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

1.- AURREKARIAK.

Orain arte, talde politikoek beren mozioak aurkeztean, askotan, espainiera hutsez aurkezten dituzte.

1992-12-09an Beasaingo Udalak Osoko Bilkuran onetsitako erabaki baten arabera, Udal honen Osoko Bilkuretan aurkeztu beharreko dokumentu guztiak, euskaraz ere aurkeztu beharra dago.

Talde politiko desberdinek, berez, beren erantzukizuna dute mozioen testuak prestatzea.

Hori betetzen ez den kasuetan ordea, Udaleko Euskara-zerbitzura pasatzen dira mozioak euskaratzeko eta horrek, ondorio hauek dakartza:

- 1) Mozioak, normalean, salbuespenak salbu, udalerrria gainditzen duten gaiez izaten dira, beraz, orokorrak eta hainbat udaletan batera aurkezten dira espainierazko testu bakar eta berdinarekin.
- 2) Mozio horiek udal bakoitzean (Beasainen bezala) euskaratzeko aginduz gero, udaletxe bakoitzeko Euskara-zerbitzuak “bere” itzulpena egiten du eta itzulpenak egiten diren udalak hainbat euskarazko testu desberdin sortzen dira.
- 3) Legez onartutako edozein testuk, hizkuntza bakoitzean eta leku guztietan testu bakarra izan behar du, izan ere, bestela nahasmendurako bidea ireki liteke.
- 4) Horrek, mozioen euskarazko testu bakarra aurkeztu aurretik eta leku guztietarako berdina, bakarra eta berbera prestatzea eskatzen du.
- 5) Horren ardura, alderdi politikoek dute eta udal guztietarako testu, bakar eta berdina euskaraz prestatzea ere beren eginkizuna da.

- 6) Alderdi politikoren batek hizkuntza batetik bestera itzultzeko planteamendurik eginez gero, hizkuntza-zerbitzu zentralizaturen batean eginarazi beharko luke, ondoren, udal guztietara testu berbera helarazteko.
- 7) Udaletxe desberdinetako Euskara-zerbitzuak testu bat-bera itzultzen aritzeak, alferrikako lana, emaitza baliogabea eta zenbat itzultzaile hainbat testu desberdin sortzea dakar, eta alferrikako lan horrek, Euskara-zerbitzuetako baliabideei, denbora alferrik galtzea eta beste garrantzizko zeregin batzuetarako ez erabiltzea eragiten die.

2.- LEGEZKO ARGUDIOAK

- 1) Lehenengoa zera da, leku guztietan mozio beraren testu bakarra eta berdina izatea da.
- 2) 10/1982 “Euskararen Erabilpena Arautzeko Legeak”, bere 3. artikuluan dionenez, “*euskara hizkuntza ofiziala da*”.
- 3) Lege berak (10/1982) bere 5. artikuluan, e) atalean, “*edozein bilkuratan euskaraz aritzeko eskubidea*” aitortzen du.
- 4) 1990-03-08an Osoko Bilkuran Beasaingo Udalak onetsi eta 1990-04-05ean GAOn (67. zk.) argitaratutako “Euskararen erabilera sustatu eta normaltzeko Udal-ordenantzak”, 4. artikuluan honako hau dio: “*Udaleko Alkatetzak, alkateordetzek, Batzordeek, Idazkaritzak, Bulego Teknikoak, Udaltzaintzak eta beste Administrazio-sail edo Zerbitzu desberdinek, Osoko Bilkura eta Gobernu-batzordeko batzarraldietarako nahiz Ordenantza honen esparrupeko erakunde edo organo desberdinen ezaguerapean jartzeko eta era berean bilkura horietatik kanporatzeko Txosten, Akta, Erizpen, Gai-zerrenda, Proposamen, Espediente, Mozio, Aurrekontu, Akordio eta gainerako jakinarazpen oro, euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira.*”
- 5) 1992-12-09an, Osoko Bilkuran Beasaingo Udalak erabakiaren arabera, mozioak euskaraz bederen aurkeztu beharra dago Osoko Bilkuretara.
- 6) 1995-05-17an **Beasaingo Udalak, Beasaingo Udaletxean zerbitzu desberdinetan euskararen erabilpena sistematikoki gauzatzen hasteko egitasmoa** onetsi zuen. 2001-05-24an berriz, 2001 eta 2002rako **Euskararen Erabilpen-plana** onetsi zuen. Azkenik, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako 1997-04-15eko 86/1997 *Euskal Autonomia Elkarte*ko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzeko Dekretuaren ildotik (1997-04-17ko EHAA, 72. zk.), Beasaingo Udalak, 2003-05-08an, **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia** onetsi zuen 2003-2005 hirurtekorako eta berarekin batera 2003ko EBPNren Kudeaketa-plana ere. 2004. urte honetan EBPNk jarraipena du bere 2004ko Kudeaketa-planarekin.
- 7) Beasaingo Udalak, alde batetik euskara hizkuntza ofizialaren erabilerarako argitaratutako lege, dekretu eta xedapenak betetzeko duen obligazioa

kontuan hartuta, eta bestetik, berak onartuak dituen erabakiak eta betebeharrak betetzeko, nahiz funtzionamendua normaltzeko, behar-beharrezkoa du mozioak aurkezteko hizkuntza-arauak jartzea.

3.- PROPOSAMENA

Aurreko guztia kontuan hartuta, Udaleko Euskara-batzordeak, EBPNren jarraipen-batzordeak eta Aholku-batzordeak proposatuarekin bat etorriz, ondorengo proposamena onartzea eskatzen dio Beasaingo Udaleko Udaltzari:

Proposamena:

BEASAINGO UDALEAN MOZIOAK AURKEZTEKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

1.- Talde politikoek aurkeztu behar dituzten mozioak, 1990-03-08an onetsitako ordenantzaren arabera, euskaraz bederen idatzita egon beharko dute.

2.- Beste hainbat udaletan aurkeztu beharreko udalez gaindiko gairen bati buruzko mozio bat ele bietan aurkeztuz gero, honako prozedura hau jarraituko da:

2.1 Talde politikoaren ardura izango da testu bakarra eta berdina prestatu edo eskuratzea.

2.2 Euskarazko mozioen testua prestatzeko itzuli beharko balitz, itzulpen-zerbitzu bakar batera jo beharko dute, euskarazko testua udal guztietarako bakarra eta berdina izan dadin.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek aurkeztu dituzte:

Iñaki Saldaña, EBko ordezkaria proposamenarekin adostasuna azaldu du.

Julio Herreros jaunak (PP) esaten du ez dagoela ados proposatzen denarekin eta mozioak gaztelaniaz aurkeztu jarraituko dutela.

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “No estoy de acuerdo con la ordenanza en el sentido de que las mociones tengan que estar redactadas por lo menos en euskera, ya que si se presetan así, yo puedo abstenerme de participar en el debate y en la votación.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Eso supondría cambiar la ordenanza. En cualquier caso si se presenta algún texto sólo en euskera, lo mandaríamos a traducir, como ya lo estamos haciendo ahora.”

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak. 12 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE; EB)

Aurkako botoak: 2 (PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da euskara batzordeko proposamena.

11- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honako hauek aurkeztu dira:

TELEFONO-ZENTRALITA

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Quiero reiterar lo que ya dije anteriormente sobre lo insufrible que resulta llamar a este Ayuntamiento, y lo que además sucede es que cuando por una emergencia se llama a la policía municipal, hay veces que salta el contestador automático.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Me hago cargo. Estamos intentando solucionarlo, pero al día de hoy esa es la realidad.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.

